



XXXVII. EHU-REN UDA IKASTAROAK XXX. EUROPAR IKASTAROAK

Miramar jauregia. Donostia

Gaia: HAURRENGANAKO SEXU-ABUSUA: GIZARTE OSOA INTERPELATZEN DUEN ERREALITATE KONPLEXUA

Umeenganako sexu-abusuak mutikoaren edo neskatoaren muga intimoak hausten ditu. Horren ondorioz, norbaitek (heldu batek edo beste adingabe batek) sexu-portaerak izatera behartzen du mutikoa edo neskatoa, desberdintasunezko edo botere asimetriazko egoeran, normalean engainuaren, indarraren, gezurraren edo manipulazioaren bitartez. Edonola ere, haur edo nerabearen eskubideen urratze larria da.

Haurrenganako sexu-abusuak alderdi ugari ditu; horregatik, ezinbestekoa da administrazioko eragile eta organo ezberdinek esku hartzea, baita ere haur eta nerabeak hartzen dituzten erakunde publiko eta pribatuek edo zerbitzuek, horietan horrelako portaerak antzeman baitaitezke.

Arartekoak antolatutako ikastaro honetan, hausnarketarako eta profesionalen eta sektoreen arteko trukerako gunea sustatzen ahaleginduko gara, sentsibilizazio, konpromiso eta interes komunaren bitartez, elkarri ezagupenak eta eskarmentua helarazi ahal izateko haur eta nerabeen kontrako sexu-indarkeriazko kasuak prebenitzen, antzematen eta horietan esku hartzen. Horrela, abiapuntu bat finkatu nahi da partekatutako estrategiak berreraikitzeke, haur eta nerabeenganako jarduera egokiak eta tratu ona garatu ahal izateko.

Zehazkiago, ikastaro honen bitartez, gai hauetan lagundu nahi da:

- Sexu-indarkeriazko egoeren ezaugarri nagusiak eta hori pairatu duten haur eta nerabeengan utz ditzakeen arrastoak ezagutzen.
- Hezkuntza afektibo-sexualarekin zerikusia duten alderdi babesleak ezagutzen eta bultzatzen.
- Umeenganako sexu-indarkeriaren adierazle batzuk identifikatzen.
- Horrelako egoeretan ebaluazio psikologiko eta auzitegiko ebaluazio egokia egiteko jarraibideez hausnartzen.
- Haurren oinarritzko eskubideak defendatzeko asmoz aurretiaz eratu den frogan berme nahikoak nola mantendu daitezkeen ezagutzen, haurrak bigarren mailako biktimizaziotik babesteko.
- Elkarri beharrezko ezagupenak adierazten, sexu-indarkeriazko kasuetan **koordinazioa eta esku-hartzea** hobetzeko.
- Lan terapeutikoa ezagutzen, horrelako egoerek izan ditzaketen eragina eta ondorioak ahalik eta gutxien izan daitezen.

Norentzat: haur eta nerabeekin lan egiten duten sistemetako profesionalentzat (gizarte-zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, justizia administrazioa, biktimak artatzeko zerbitzua, Ertzaintza...); ikasleentzat; haur eta nerabeen eskubideak babesteko taldeentzat.



EGITARAUA

Uztailak 5. Lehen saioa

- 9:00 **Akreditazioak eta agiriak ematea**
- 9:30 **Ikastaroaren hasiera**
Arartekoa eta EHUKo ordezkari bat
- 10:00 **I. ponentzia**
"Ikusi nahi ez duten begiak: begiratu bat haur eta nerabeenganako sexu-abusuari".
Hizlaria: Eva Silván, Save the Children Euskadi.
- 10:45 **II. ponentzia**
"Eta zer dio Europak? Lanzaroteko Hitzarmena".
Hizlaria: Elda Moreno. Europako Kontseiluko ordezkaria.
- 11:30 **Atsedena**
- 12:00 **III. ponentzia**
"Prebentzioak duen garrantzia: hezkuntza afektibo-sexuala haurtzaroko eta nerabezaroko aldi ezberdinetan".
Hizlaria: Pepa Horno Goikoetxea, "Espirales" Haurren Aholkularitza-enpresa.
- 12:45 **IV. ponentzia**
"Sexu-abusua gertatu den egoeren ebaluazio psikologikoa eta auzitegikoa. Testigantza balioa eta aurretiaz eraturako frogaren bermeak".
Hizlaria: Raquel Raposo. ADIMA (Sevilla).
- 14:00 **Saioaren amaiera**



Uztailak 6. Bigarren saioa

- 9:00 **I. Mahai-ingurua**
“Esku-hartze terapeutikoa biktimekin eta erasotzaileekin”.
Hizlariak: José Luis Gonzalo. Psikoterapeuta.
Kieran McGrath. ATURA'T programako aholkularia.
- 10:00 **V. ponentzia**
“Haurrenganako sexu-abusuaren irudiak Interneten”.
Hizlaria: Alejandra Pascual, FAPMI-ECPAT. Espainiako FAPMI-ECPATeko Haur eta Nerabeen Sexu eta Merkataritza Esplotazioa (ESCIA) Prebenitzeko Programa.
- 10:30 **VI. ponentzia**
“Erakundeen arteko ezinbesteko koordinazioa: Balearretako esperientzia”.
Hizlaria: Miryam Carrero. Balearretako Gobernuako Adingabeen Zuzendaritza Nagusia.
- 11:00 **Atsedena**
- 11:30 **II. Mahai-ingurua**
“Laguntzak bilbatzen, Euskadin erantzun koordinatua emateko”.
Moderatzailea: Iñaki Alonso. Euskadiko Save the Children.
Parte-hartzaileak:
- José M^a Murguialday. Gipuzkoako Hezkuntza Ikuskaritza.
 - Karmele Díez. Basurtoko Ospitalea. Osakidetza.
 - Juan Luis Ibarra Fuentes. Euskal Herriko Auzitegi Nagusia.
 - Fernando Álvarez Ramos. Justizia Sailburuordetzako epaitegietako lantalde psikosozialak.
 - Marta Isabel Fernández Fernández. Fiskaltza. Bizkaia.
 - Sebastián Serrano Hernández. Ertzaintzaren Ekintzen Koordinazioa.
 - Gizarte Politiketako Saileko ordezkaria. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- 13:30 **Itxiera**